

## **“Aldaketa sozialerako, independentzia” aldarrikatuko du LABek aurtengo Diadan**



LAB sindikatuak bere babesa erakutsi nahi dio Kataluniari eta hartu duen erabakitze eskubidearen aldeko bideari. Gure etorkizunaz erabakitze antzerako ariketa, burujabetza prozesu sozial eta aldebakarrekoaren bidez egindakoa, nahiko genuke Euskal Herrirako ere, eta horretan ari gara lanean. Diada egunean, astelehenean, LABek deialdi propioa egingo du, eta egoitzetan elkarretaratzeak egingo ditu.

Herri batek eta bere herritarrek euren etorkizunaz erabakitze aukera da urriaren 1ean Katalunian egingo den Independentziarako Erreferenduma. Demokrazia ariketa gorena. Guk argi dugu galderari zer erantzun geniokeen, baiezkoa, independentistak garelako. Independentzia delako, pertsonen bizitza erdigunean jarriko duen eredu bateranzko bidean, aldaketa sozialerako tresna eta bide eraginkorra. Hala ere, galdetzea bera da garrantzitsua. Etorkizunaz erabakitze eskubidea izatea, galdetuak izatea eta bozkatu ahal izatea.

Espainiatik mehatxu eta erasoak besterik ez dira etorri. Ezin dute onartu herri katalanaren demokrazia ariketa. Katalan herriaren bidea babesten dugun moduan, Espainiako estatuaren jarrera inposatzailea salatzea besterik ez zaigu geratzen. Gure elkartasuna helarazi nahiko genuke mehatxu eta erasoak jasotzen ari diren guztiei.

Astelehenean izango da Diada, Kataluniaren eguna. Eta honen inguruan Kataluniari eta bere prozesuari babesa erakusteko mobilizazioetan izango da LAB, Euskal Herrian zein Katalunian.

Deialdi propioa ere egin du LABek Diada egunerako. Sindikatuak elkartasun eta babes elkarretaratzeak egingo ditu bere egoitzetan, “Aldaketa sozialerako independentzia” lelopean. 20 deialdi inguru izango dira Euskal Herri osoan zehar. Garbiñe Aranburu Idazkari Nagusiak adierazpenak eskainiko dizkie komunikabideei Donostiako Igarako egoitzan, 11:00etan.

Diadan zein hemendik aurrera, Kataluniako Erreferendumaren alde eta aldebakarreko burujabetza prozesu sozialaren alde mobilizatzeko deia egiten die LABek langileei.